

Zinekin

Kultura eraldatzailea



Zinekin

kultura eraldatzailea

Zaragüeta Zulaica Fundazioaren proiektua.

Kulturarako sarbidea errazteko ematen den laguntza oro norberaren nahiz gizartearen aurkikuntza eta eraldaketarako bidea delaren uste sendoarekin.

Horregatik, eta helburu horrekin, Fundazioak Zinekin sortu du, bizitzarako funtsezko esperientziak sortzeko eta eraldaketa bultzatzeko tresna gisa.

FUNDACIÓN ZARAGÜETA
ZULAICA FUNDAZIOA

Eskaintzen dugu



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

Prestakuntza aktiboa:

Ahalduntzerako gaitasunak garatzea

Zinemaren arloko prestakuntza aktiboa eskaintzen diegu zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei. Programa hau prestakuntza teknikotik harago doa; parte hartzaileek beren sormen gaitasunak aurkitu eta garatzen dituzten ahalduntze prozesua da.

Saio praktikoen eta elkarlaneko tailer naiz proiektuen bidez, beren burua adierazi eta beren istorioak kontatzeko behar dituzten ikusentzunezko tresnak eta laguntza eskaintzen dizkiegu.

Profesionalekin elkarlanean

Zinemaren industrian lankidetzak

Zinemako profesionalekin elkarlanean aritzen gara gure parte-hartzaileei orientazioa eta mentoretza eskaintzeko. Lankidetzak horiei esker, sektoreko adituen eskutik ikasteko, ezagutza praktikoak eskuratzeko eta harreman profesional baliotsuak sortzeko aukera dute.

Aurreproduktiotik postproduktiora arte, parte-hartzaileek zinemagileekin batera lan egiten dute, benetakoa eta aberasgarria den esperientzia bizitzen dutelarik.

Etorkizuna eraikitzen

Inklusioa eta aniztasuna sustatzen

Gure parte-hartzaileek sortutako ikus-entzunezko lan bakoitza film bat baino askoz gehiago da; artearen eta inklusioaren ahalmen eraldatzailearen adierazgarri bizia da.

Lan horiek estereotipoak zalantzan jartzen dituzte, aniztasuna sustatzen dute eta gizartean askotan baztertuta geratzen diren pertsonei ahotsa ematen diete. Prozesu honen bidez, etorkizun bidezkoago eta bateratuago bat eraikitzen ari gara, non pertsona guztiek ekarpena egiteko eta garatzeko aukera izango duten.

Ikus-entzunezko ekoizpena



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

NEURRIRA DISEINATUTAKO PROIEKTUAK

Helburua urtero hainbat ikus-entzunezko proiektu ekoiztea da. Proiektu horiek ekimen indibidualetatik abiatuta edo erakunde nahiz erakundeek egiten dituzten eskaera zehatzen arabera diseinatuko dira.

LAN-TALDEA

CECADI formakuntzan parte hartutako ikasleek eta ZINEKIN film laburren programeko parte hartzaileek osatzen dute taldea, ikus-entzunezko sektorean jardunean dauden profesionalekin batera.

ESTRENALDIA ZINEMALDIAN:

Esperientzia eraldatzailea

Film laburrak Donostiako Zinemaldian  **SSIFF** Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival, sortzaileek eta parte hartu duten profesionalek bizitako esperientzia sakonago ezagutzeko elkarrizketa eta topaketarako gune bat sortzeko helburuarekin.

Aurrekariak 2006-2023



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

10 urte ATZEGIrekin:

“Aquí es posible, comunicación sl”proiektua

Hamar urtez Atzegirekin elkarlanean film laburrak ekoiztu ondoren, "Aquí es posible, Comunicación S.L." proiektua garatu zen. Bertan, zinemako profesionalek eta desgaitasuna duten pertsonek sail teknikoak eta aktoreen lanak %50ean partekatu zituzten.

<https://vimeo.com/257751016>



CECADIren sorrera:

Kalteberatasun-egoeran dauden pertonentzako Ikus-entzunezko Prestakuntza Zentroa

Atzegirekin izandako esperientziak CECADI sortzea ekarri zuen: kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzako ikus-entzunezko prestakuntza-zentroa.

Proiektua Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Super Amarak batera babestu zuten.

<https://vimeo.com/784392254?share=copy>



SALTO DEL EJE:

Berdintasun ezaren aurkako zinema- sorkuntza



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

2023an Fundazioak Salto del Eje proiektua kudeatu zuen. Proiektua “Alto Comisionado contra la pobreza Infantil”-ek bultzatu zuen, Espainiako Gobernuako Lehendakariaren ekimenez, eta honako erakunde hauen lankidetzarekin garatu zen:

<https://vimeo.com/853750928?share=copy>

<https://vimeo.com/862648620?share=copy>

<https://vimeo.com/853751686?share=copy>

<https://vimeo.com/784392254?share=copy>



Documentala:

"La otra cara de Donostia"

Dokumentala 2023ko Salto del Eje programan parte hartu zuten Bideberri Institutuko ikasleek egin zuten, Fundazioaren babesarekin.

Ikasleek dokumental osoa sortu dute: ideiatik hasita, azken emanaldira arte. Lanak bakoitzaren jatorrizko herrialdeetatik Donostiara iritsi arteko ibilbidea kontatzen du.

Galdera hauei erantzuna bilatzen die: Zerk behartu zituen alde egitera?, Nola iritsi ziren?, Norbaiten zain al zeuden?, Bazterkeriarik edo mespretxurik jasan al zuten?, Nork eragin zien?



2024



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

2024



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

Film laburrak:

“La influencer” eta “Tiroteo”



Ikasturte honetako programa Bidebietako Bideberri BHI-ko Bigarren Hezkuntzako bi ikasgelekin garatu da. Ikasgela horietako ikasle guztiak jatorri atzerritarrekoak dira.

Talde tekniko bakoitzak ikus-entzunezko sektoreko profesionalekin batera partekatu du sormen-prozesu osoa. Horrez gain, zinemaren munduko erreferente den amabitxi edo aitabitxi baten laguntza izan dute. Pertsona horrek prozesu osoan zehar lagundu die eta film laburrak taldeekin batera aurkeztuko ditu Donostiako Zinemaldian.



“La Influencer” <https://vimeo.com/968195662>
Making of “La Influencer”
<https://vimeo.com/967229827>

“Tiroteo” <https://vimeo.com/964533295>
Making of “Tiroteo”
<https://vimeo.com/967238503>



2025



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

Film laburrak:

“El Buffet Libre” eta “Tóxicos”

Aurten adin desberdinetako bi taldek hartu dute parte programan:

Mendiola Ikastetxeko ikasgela

Bidebietako Bideberri Institutuko ikasgela

Bi ikastetxe horietako ikasleen gehiengoa jatorri atzeritarrekoa da. Horrek erronka handia izateaz gain, jarduera aberasten duen aniztasuna ere ekartzen du. Talde bakoitzak ikus-entzunezko profesionalekin batera bizi izan du sormen-prozesua.

Film laburrak Donostiako Zinemaldian estreinatzen dira, zinemaren munduko erreferente den amabitxi edo aitabitxi batekin batera.



El Buffet Libre: <https://youtu.be/qn3dF-C3Kbo>

Tóxicos: https://youtu.be/khKtGIU_j8k

Film laburrak:

“El baño”, “El tiro del rap” eta “Por definir”

2026an hiru film labur ekoitzi dira, eta protagonistak hauek izan dira:

Mendiola Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak.

Bidebietako Bideberri Institutuko DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak.

Talde bakoitzak ikus-entzunezko profesionalekin batera partekatu du sormen-prozesua.

Film laburrak Donostiako Zinemaldian estreinatuko dira, zinemaren munduko erreferente den amabitxi edo aitabitxi baten laguntzarekin.



El baño: <https://youtu.be/iX9yFWG7-I> El tiro del rap: <https://youtu.be/ttBkguqsuu0>

Por definir: <https://youtu.be/Xs2mOuDmAg8>



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

2025-2026



FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

Zine Zubiak; Ama Guadalupekoa - Bideberri

Proiektu honen ardatza zubia da, migrazio-prozesuaren, errealitate desberdinen arteko topaketaren eta elkarrekiko aitortzan oinarritutako loturen eraikuntzaren ikur gisa ulertuta.

Esku-hartzea elkarren osagarri diren hiru fasetan egituratutako prozesu baten bidez garatzen da. Fase horietan hausnarketa, sormen artistikoa eta lortutako emaitzen sozializazioa uztartzen dira.

Zubi honen abiapuntua «La Otra Cara de Donostia» dokumentalaren emanaldia da. Lan hau Donostiako Bideberri Institutuaren eta Zinekin zinema-tailerreko ikasle talde baten lankidetzari esker egin zen. Gazte horiek migrazioari buruz duten ikuspegia partekatu nahi izan zuten, eta beren bizipen pertsonalen bidez identitatea eta Donostiaren beste aurpegia erakutsi zituzten.

Lehen Zine Zubiak esperientzia hau Donostiako Bideberri BHIIn egin da.

Bertan parte hartu dute: Hondarribiko Ama Guadalupekoa ikastetxeko 50 ikaslek eta Bideberriko 8 ikaslek

Gizarte-testuinguru desberdinetako gazteak elkartu dira, eta hasieran pentsa zitekeena baino balio, esperientzia eta bizipen gehiago partekatzen dituztela egiaztatu dute.



Making of (castellano):
<https://vimeo.com/1146544275>

Making of (euskera):
<https://vimeo.com/1146544382>





FUNDACIÓN
ZARAGÜETA
ZULAICA
FUNDAZIOA

